

ortzadar



Keu Agirretxea

Egunerokotasunari
musika jarriz

[2. orrialdea]

Web hoberenak

Buber saridunei
errepassoa

[2. orrialdea]

ETXEGIROAN

Ipuinei bizia ematen diete María
Uriartek eta Tomás Fernandok

[4-5. orrialdeak]

LITERATURA > AUDIO NARRAZIOAK

mariauriarte tomasfernando

“Plazera da etxean testuak elkarrekin irakurtzea”

Egunaren abiada moteldu eta jendea etxeko epelera batzen denean pizten dituzte mikrofono eta soinu aparailuak Maria Uriartek eta Tomas Fernandok. Etxearen gozoan, literaturaren giroan barnertzen dira. Umeentzako zein helduentzako ipuinak eta audioliburuak grabatzen dituzte. Eta, Osoitz Elkorbarriaren laguntzarekin, interneten hartarako propio sorturiko atarian jartzen dituzte, www.etxegiroan.com-en

AMAIA ARRAINZA

Musikagintza eta irakaskuntza arloetatik datoz, hurrenez hurren, Tomas Fernando eta Maria Uriarte. Udaberrian abiarazi zuten milaka bisita jasotzen dituen www.etxegiroan.com webgunea eta berriki zenbait aldaketa egin dizkiote, eskaerari hobeki erantzuteko asmoz. RSS bidezko harpidetza sistema ezarri dute, eta beste hainbat egileren testuak gehitu.

Nola otu zitzaizuen grabaketak egiten hasia? Noiz hasi zineten?

Tomas: 2004an hasi ginen grabazioak egiten. Mariak lehenagotik ere egiten zituen, lan kontuek bultzatuta. Lehen beste mundu bat zen grabazioa. Kaseteetan grabatzen genuen, testu liburutako material moduan.

Maria: Ume itsuekin lan egiten dut nik, eta haientzako ipuinak grabatzen hasi nintzen.

T.F.: Bi mundu batu genituen, Mariaren lana eta aspalditik genuen gogo bat, zaletasun bat. Musikaren mundutik nentorren ni; beraz, ezagunak egiten zitzaizkidan musika tresnak eta grabazioak egiteko aparailuak. Iraultza digitalak bete-betean harrapatu gintuen, eta aukera ugari ireki zitzaizkigun bat-batean. Estudio txiki bat atondu genuen etxean, eta grabazioak egiten hasi ginen.

M.U.: Lehendabiziko grabazioak Tas-Tas irrati librerako egin genituen, mikroipuinak eta antzekoak ziren. Lagunek eskatuta ere hasi ginen beste pieza batzuk grabatzen, Basauriko euskaldunen elkartearen Euskarabilarentzat eta. Institutuetatik eta argitaletxeetatik ere hasi ginen enkarguak jasotzen, material didaktikoak grabatzeko. Bide natural bat izan da. Tomas musikatik zetorren, eta nik beti izan dut hitzarekiko zaletasun eta joera argi bat. **T.F.:** Guretzat plazera da etxean testuak elkarrekin irakurtzea, grabatzea. Gorka Andrakak gure



Tomás Fernando eta María Uriarte, etxean atondo duten grabazio estudioan. ARGAZKIA: PABLO VIÑAS

lanak Tas-Taseko *Mar de fueguitos* programan sartzeko aukera eskaini zigun, eta horrek bultzada bat eman zigun.

Eta nolatan erabaki zenuten webgunea sortzea eta grabazio horiek guztiak jendearen eskura jartzea?

T.F.: Ipuin mordoia pilatu zitzaizkigun. Fonoteka bat sortu nahi genuen nolabait, eta webgunea horretarako aukera ematen zigun. Gainera, nahi duzun toki-

tik nahi duzun uanean entzutea ahalbidetzen du.

M.U.: Jendeak kopiak eskatzen zizkigun, umeekin edo helduekin lan-tzeko... Gauza askotarako.

Ezin zuen gauza iragankor bat izan; hainbeste mimorekin landutako zerbaitek ezin zuen desagertu: gure ilusioa zen jendearen eskura egotea. Eta webgunea aukera ona iruditu zitzaigun.

Zer behar du izan ipuin edota testu batek hura graba dezazuen?

M.U.: Gustatu behar zaigu. Nik hautatzen ditut gehienetan, eta barruan zerbaite eragiten didaten testuak izaten dira, zerbaite sen-

tiarazten didatenak. Testu horiei ahotsa jartzeko irrika izaten dut. Enkarguak ere izaten ditugu.

T.F.: Baina enkarguak egiten dizkigutenek antzeko zaletasun eta sentimenduak izaten dituzte. Ondorioz, enkarguak izan arren, testu horiek oso geureak sentitzen ditugu.

M.U.: Batzuetan esaten digute: *liburu honetako pasarteak nahi ditut*. Baina guk aukeratzen ditu-

gu gehien gustatzen zaizkigunak. **Nola prestatzen zarete grabaketak egiteko?**

M.U.: Testua aurrez lantzen dugu. Testua neureganatzen dut; hiztegia ondo aztertzen dut eta tonu bat bilatzen dut: tragikoa, ironikoa, dramatikoa, gozoa... Giro aldaketak zehazten ditut, tempoak ezartzen, abiadura noiz arindu eta moteldu... Umeentzako direnean pertsonaiak gorpuzten saiatzen

Liburuak entzuteko etxegiroan.com ataria jarri du abian bikote honek

“Testua neureganatzen dut; hiztegia ondo aztertu eta tonua bilatu”

Sarrionandia, Benedetti edo Grimm anaiak barne, eskaintza zabala dago

Euskarazko literatura, 36 herrialdetan barna

Munduaren luze-zabalean entzuten dituzte Maria Uriartek eta Tomás Fernandok grabaturiko piezak. 36 herrialdetan, zehatz-mehatz. Frantzia, Ingalaterra, Errusia, India, Finlandia, Mexiko, Argentina, Txile, AEBak, Maroko, Suitza, Uruguay, Australia, Guatemala... Herri horietatik guztietatik sartzen dira webgunera. Zer entzuten duten? Bada, umeentzako eskaintza zabala dago; Joseba Sarrionandia, Antton Irueta, Eider Rodríguez, Mariasun Landa, Miren Agur Meabe, Juan Kruz Igerabide, Jon Suarez eta Pello Añorga, Grimm anaiak, Ursula Wölfel eta Euskal Herriko, Indiako eta Ingalaterrako herri ipuinak daude, besteak beste. Helduek, halaber, uza oparao aurkituko dute webgunean. Amets Arzallus, Arantxa Iturbe, Eduardo Galeano, Eider Rodríguez, Harkaitz Cano, Ixiar Rozas, Jon Maia Soria, Joseba Sarrionandia, Mario Benedetti, Julio Cortazar, Sonia Gonzalez eta Lutxo Egriaren lanak, besteren artean.

naiz, haien izaera irudikatu ahotsaren bidez. Eta, batez ere, saiatzeko naiz geldiuneak markatzen eta mintzagaiak eta galdegaiak bereizten. Ahoak seinalatzen dut, ahotsak non egin behar duen gora edo behera... Eta gehienbat ahalegina egiten dut entzuleari denbora ematen esaten gabiltzana ikus dezan, irudika dezan. Testua grabatzen dugu lehendabizi, eta gero testu hori egoera desberdinetan entzuten dugu: ohetik altxatu berritan, sukaldean gaudela, iluntzean, kotxean goazela... Une desberdinetan entzuten dugu, zerbait aldatzea behar duen argiago ikusteko.

T.F.: Atmosfera eta erritmo desberdinetan programatzen dugu nolabait esatearren.
M.U.: Edozein modutan entzungo dela, ulertu egingo dela ikusi behar dugu. Orduan ematen dugu ontzat. Aldaketak eginez, bigarren eta hirugarren aldiz ere grabatzen dugu. Gero Tomásék hartzen du, eta testua jantzi egiten du nolabait. Neurrirako jantzi bat egiten dio, erritmoa eta tempoak oso konfiantzaz hartuz, musika sartuz.

T.F.: Testuari atmosfera edo giroak jartzen dizkiot. Masterizatu eta webgunean jartzeko moduan uzten dut.

Webgunerako ez ezik, beste norbaitentzako egin duzue grabaketarik?

T.F.: Hainbeste eskaintza jaso-tzen genituela ikusita, audio literatura ekoizpen etxe bat antolatu zena erabaki genuen, Etxegiroan. Enkarguzko lanak egiten ditugu, argitaletxeentzako, instituzioen-tzako eta abar.

M.U.: Baditugu ideia batzuk. Audio liburuak sortu eta abar.

T.F.: Bakarren bat ere badugu amaituta, eta beste batzuk martxan.

Testuen egileekin harremanik ba al duzue? Nola ikusten dute zuen ekarpena?

M.U.: Webgunea sortu genuenean, gutunak idatzi genizkien idazle guztiei, banan-banan, nortzuk garen azalduz, zer egiteko asmoa genuen... Euren aldetik erantzuna izan da espero bakoa: oso bero hartu eta zoriondu gaituzte. Aupatu gaituzte horrelako lanak egiten jarraitzeko.

RSS bidez, harpidetza egiteko aukera ere bada orain webgunean. Eskaera bati emandako erantzuna izan da?

T.F.: Webgunean eman dugun urrats berri bat da. Duela gutxi abiarazi dugu, eta oraindik goizegi da zein harrera duen jakiteko. Baina badugu atal bat jendearen iritzia jasotzeko, eta horren bidez mezu asko jaso ditugu zein lan egiten ditugun galdetuz eta abar.

M.U.: Testuak ere eskatzen dizkigute. Horregatik, orain webgunean testuak ere jarri ditugu, eta bakoitza nondik atera dugun zehaztu.

Zenbat bisita jasotzen dituzue hileroko?

T.F.: Apiriletik gaurdaino 15.000 bisita baino gehiago jaso ditugu. Institutuetan, eskoletan eta euskaltegietan oso erabilia da webgunean.

M.U.: Beste jende batek ere esan digu umeei jartzen dizkiela gauean ipuinak, ohean daudela, lo har dezaten.

"Eskola eta euskaltegietan oso erabilia da gure webgunea, milaka bisita jaso ditugu"



Lagunek eskatuta hasi ziren ipuinei ahotsa ipintzen eta orain grabazio estudioa jarri dute martxan. ARGAZKIA: PABLO VIÑAS